



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

XI. legegintzaldia

Iruña, 2024ko otsailaren 23a

27. ZK.

A U R K I B I D E A

E SAILA:

Interpelazioak, mozioak eta adierazpen politikoak:

- 11-24/MOC-00028. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernuak premiatzen baita Ega eta Arga ibaien eta horien ibaiadarren arroi buruzko txostenak eta azterlanak egin ditzan, ibai horien ura bildu eta erregulatuko luketen etorkizuneko urtegiak kokatzeko moduko balizko aurkintzak zehaztuta. Nafarroako Alderdi Popularra talde parlamentarioak aurkeztu du (3. or.).
- 11-24/MOC-00029. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernuak premiatzen baita % 100eko hobaria ezar dezan egintza juridiko dokumentatuen gaineko zergaren eta ondare-eskualdaketen gaineko zergaren tributu-kuotan, Espainiako Gobernuak iragarri duen abal-lerroan aurreikusitako kasu guztietarako. Emilio Jiménez Román jaunak aurkeztu du (4. or.).
- 11-24/DEC-00006. Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak berretsi egiten baitu Errusiak Ukrainari egindako eraso militarra salatzen duela, eta eskatzen baitu berehala buka dadila eta indar militarrek Ukrainatik atera daitezela. Eledunen Batzarrak onetsi du (6. or.).
- 11-24/DEC-00007. Adierazpen instituzionala, kiroleko LGTBifobiaren aurkako Nazioarteko Eguna dela eta. Eledunen Batzarrak onetsi du (7. or.).

F SAILA:

Galderak:

- 11-24/PES-00081. Galdera, "bibliobusa", "biblioneta" eta gisako zerbitzuei buruzkoa. Mikel Zabaleta Aramendia jaunak egin du (8. or.).
- 11-24/PES-00082. Galdera, zerbitzu publikoetarako azpikontraturiko enpresetan hitzarmen kolektiboak betetzeari buruzkoa. Carlos Guzmán Pérez jaunak egin du (9. or.).
- 11-24/PES-00083. Galdera, lizitazio-epeak bete ez dituzten hiru proiekturi buruzkoa. Ángel Ansa Echegaray jaunak egin du (10. or.).
- 11-24/PES-00084. Galdera, Inklusio eta Gaikuntza Digitalerako 2021-2025 Planari buruzkoa. Ángel Ansa Echegaray jaunak egin du (11. or.).
- 11-24/PES-00085. Galdera, azken inauterietako ostiralean Iturramako institutuan egindako kontzertuan oihukatutako mezuei buruzkoa. Iñaki Iriarte López jaunak egin du (12. or.).

- 11-24/PES-00086. Galdera, azken inauterietako ostiralean Iturramako institutuan egindako kontzertuan oihukatutako mezuei buruzkoa. Iñaki Iriarte López jaunak egin du (13. or.).
- 11-24/PES-00087. Galdera, Kontratazio Administratiboko Batzordea arautzen duen ekainaren 26ko 74/2019 Foru Dekretua aldatzeko foru dekretuaren onespeneren berandutzeari buruzkoa. Marta Álvarez Alonso andreak egin du (14. or.).
- 11-24/PES-00088. Galdera, unibertsitate-beken partida exekutatzeari buruzkoa. Cristina López Mañero andreak egin du (14. or.).
- 11-24/PES-00089. Galdera, Boliviako osasun-arduradunek urtarrilaren 15etik 19ra bitartean Nafarroara egindako bisitako agendari buruzkoa. Marta Álvarez Alonso andreak egin du (15. or.).
- 11-24/PES-00090. Galdera, Hezkuntza Departamentuaren gizarte- eta hezkuntza-izaerako programei buruzkoa. Eneka Maiz Ulaiar andreak egin du (16. or.).
- 11-24/PES-00091. Galdera, jatorriz migranteak izanik egoera erregularizatugabeen dauden pertsonen prestakuntzarako duten eskubidea bermatzeari buruzkoa. Javier Arza Porras jaunak egin du (17. or.).
- 11-24/PES-00092. Galdera, Nafarroarentzako ikus-entzunezko edukiak biltzeko plataformarako proiektuari buruzkoa. Mikel Zabaleta Aramendia jaunak egin du (18. or.).

G SAILA:**Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:**

- Nafarroako Kontuen Ganberako lehendakariaren Ebazpena, zeinaren bidez onesten baitira 2024. urterako plantilla organikoa eta 2023ko abenduaren 31n zeuden funtzionarioen eta behin-behineko langileen zerrenda (19. or.).

E saila:
INTERPELAZIOAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

11-24/MOC-00028. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premia-tzen baita Ega eta Arga ibaien eta horien ibaiadarren arroi buruzko txostenak eta azterlanak egin ditzan, ibai horien ura bildu eta erregulatuko luketen etorkizuneko urtegiak kokatzeko moduko balizko aurkintzak zehaztuta

NAFARROAKO ALDERDI POPULARRA TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko otsailaren 19an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nafarroako Alderdi Popularra talde parlamentarioak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premia-tzen baita Ega eta Arga ibaien eta horien ibaiadarren arroi buruzko txostenak eta azterlanak egin ditzan, ibai horien ura bildu eta erregulatuko luketen etorkizuneko urtegiak kokatzeko moduko balizko aurkintzak zehaztuta.

2. Agintzea Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin.

3. Ezartzea mozioa Osoko Bilkuran izapidetu dadin, eta xedatzea zuzenketak aurkezteko epea buka dadin eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2024ko otsailaren 19an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

MOZIOAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Popularraren talde parlamentarioaren eledun Javier García Jiménez jaunak, Legebiltzarraren Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, Lurralde Kohesiorako Departamentuari zuzendutako honako mozio hau aurkezten du, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko:

Zioen azalpena

Ebro ibaiak eta haren ibaiadarrek aldiro egin dute gainezka eta eragin dituzte uholdeak Nafarroan azken urteotan.

Etorkizunean klimatologia makurragoa izanen dela diote; halatan, euriak areago izanen omen dira uholde-urak, eta ibaiek ur-emari handiagoak izanen omen dituztenez urak bortitzago hartuko ditu azpian herriak eta ibai-bazterrak.

Nafarroan bizi dugun lehortekak, aldiz, ur-eskasia eta -murrizketa ekarri du, ubideen bidez ibai horretako ura zuzenean hartzen zuten ureztalurrak ureztatzeko.

Egoera halakoa da urak Ebro ibaira isurtzen dituzten ibaietan urtegiak ez dagoelako eta erregulazioa eskasa delako.

Nafarroan, ibai horietako bitan –hain zuzen ere, Argan eta bere ibaiadarretan eta Egan–, azken hamarkada hauetan ez da ekimenik izan horiek erregulatzeko.

Uholdeak, goraldiak eta lehortekak urtero-urtero gertatzen ari dira azken hamarkada hauetan, eta horien ondorio negatiboak areagotu egingen bide dira etorkizunean.

Ebro ibaiak, arro osoko jasotzaile nagusia eta hustubidea den aldetik, "gehiegikeriak eta gabeziak" izan ditu, baina larriena da aurreikuspenen arabera ondorioak larriagoak eta makurragoak izanen direla plangintza hidrologiko alderrai eta eskas horren ondorioz. Arazo horien jatorrian dago, besteak beste, Ega eta Arga ibaietan urtegiak ez egotea.

Horregatik guztiagatik, Nafarroako Parlamentuak honako erabaki proposamen hau onesten du:

1. Ega eta Arga ibaien eta horien ibaiadarren arroi buruzko txostenak eta azterlanak egitea, ibai horien ura bildu eta erregulatuko luketen etor-

kizuneko urtegiak kokatzeko moduko balizko aurkintzak zehaztuta.

2. Adituen batzorde bat sortzea, azterlan horien emaitzak ikusita Nafarroaren interesekoak izan litezkeen etorkizuneko urtegiak proposatzen ahal dituen.

3. Etorkizuneko plan hidrologiko nazionaletan urak Ebrora isurtzen dituzten Nafarroako ibaiak erregulatzeko jarduketak, Nafarroaren interesekoak direnak, proposatzea.

Iruñean, 2024ko otsailaren 13an

Eleduna: Javier García Jiménez

11-24/MOC-00029. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premia-tzen baita % 100eko hobaria ezar dezan egintza juridiko dokumentatuen gaineko zergaren eta ondare-eskualdaketen gaineko zergaren tributu-kuotan, Espainiako Gobernuak iragarri duen abal-lerroan aurreikusitako kasu guztietarako

EMILIO JIMÉNEZ ROMÁN JAUNAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko otsailaren 19an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Emilio Jiménez Román jaunak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premia-tzen baita % 100eko hobaria ezar dezan egintza juridiko dokumentatuen gaineko zergaren eta ondare-eskualdaketen gaineko zergaren tributu-kuotan, Espainiako Gobernuak iragarri duen abal-lerroan aurreikusitako kasu guztietarako.

2. Agintzea Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin.

3. Ezartzea mozioa Osoko Bilkuran izapidetu dadin, eta xedatzea zuzenketak aurkezteko epea buka dadin eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2024ko otsailaren 19an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

MOZIOAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Vox Nafarroa foru parlamentarien elkarteari atxikita dagoen Emilio Jiménez Román jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduaren 219. artikuluan xedatzen denaren babesean, honako mozio hau aurkezten du, hurrengo Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko: hobaria egintza juridiko dokumenta-

tuen gaineko zergaren eta ondare-eskualdaketen gaineko zergaren tributu-kuotan.

Zioen azalpena

Familiak beren ingurunera luzatzeko modu bat dira gure etxeak, helburu pertsonal, familiar eta sozialak gauzatzeko inguru naturala, Estatuak bermatu eta zaindu beharrekoa. Halere, lan-baldintzak hainbeste prekarizatu dira –batez ere, gazteenak– non ezinezkoa baita gutxieneko aurrezpena egitea; eta etxebizitzaren prezioa hain da neurrigabea –berdin dio erostekoa nola alokairukoa– non eragotzi egiten baita gure gazteak emantzipatzea eta, ondorioz, horien familia-proiektuak hilik daude baita hasi aitzin ere.

Datuak latz-latzak dira. Eurostat-en arabera¹, Espainia Europar Batasuneko laugarren herrialdea da emantzipazio berankorrenen batez besteko adinari dagokionez (30,3 urte); izan ere, Espainiaren aurretik soilik daude Kroazia (33,4 urte), Eslovakia (30,8 urte) eta Grezia (30,7 urte), eta Bulgariaren pare dago. Eta azken urteotako joera txarra da inondik ere. Emantzipazio-tasa progresiboki jaitsi da Espainian azken 15 urteotan: 2008an % 26koa zen gurasoen etxetik kanpo bizi ziren 18 eta 34 urte bitarteko gazte espainiarren portzentajea, baina % 16,3raino jaitsi da "Emantzipazioaren Behatokia" txostenaren arabera. Europar Batasuneko batezbestekoa, berriz, % 31,9koa da².

Egoera jasanezina zen lehen ere, eta esponentzialki okertu da gaur egun bizi dugun

larrialdi ekonomiko eta sozialaren eraginez. Familien eroshalmenaren galera drastikoa, interes-tasen igoera eta etengabeko inflazioa dira, etxebizitzaren prezio ezin ordaindukoarekin batera, gazte-belaunaldi osoak biziraupenaren estoldazulora zokoratzen ari den gizarte- nahiz belaunaldi-kolapsoaren osagaiak. Behartsuen belaunaldi oso bat, non kimera bat besterik ez baita norberaren auzoan edo herrian geratzeko eta aurrera egiteko.

"Emantzipazioaren Behatokiaren" arabera, hipoteka bateko lehenbiziko hileko kuotak gazteen batez besteko soldataren % 65,9 egiten du, eta gazte batek, etxebizitza bateko sarrera ordaintzeko, 53.796 euro aurreztu beharko lituzke, hori baita Espainian etxebizitza libre baten sarrerako batez besteko prezioa; hau da, lau urte eta erdiko bere soldata garbi osoa.

Eta egon badaude errudunak. Gobernuak, batak bestearen atzetik, aukera-basamortu bihurtu dute Espainia gure aberkideentzat, eta "likidazioa, ixteagatik" afixa eskegi dute erakuslehoan, nazio-koei aplikatzen ez zaizkien onura fiskalak dauzkaten urrutiko eliteak erakartzeko, eta horren guztia- ren ondorioz klase ertainek eta langileek gero eta zailtasun handiagoak daukate etxebizitza bat lortzeko.

Gauzak horrela, otsailaren 13an –asteartea–, Espainiako Gobernuak 2.500 milioi euroko abal- lerro bat onetsi zuen ICO-Kreditu Ofizialeko Insti- tutuaren bidez, gazteek eta adingabeak beren kar- gura dauzkaten familiek lehenbiziko etxebizitza erosi ahal izan dezaten. Abal-lerro hori urtean 37.800 eurotik beherako diru-sarrerak (ondorio askotarako errenta-adierazleaz goitiko errentaren halako 4,5) dauzkaten 35 urtetik beherakoei eta adingabeak beren kargura dauzkaten familiei zuzenduta dago, aldatu eginen baita bikotea osa- tzen badute edo adingabeak beren kargura badauzkate. 18 urtetik gorako pertsona fisikoek eskatzen ahalko dute, baldin eta legezko bizilekua azken bi urteotan eta etenik gabe Espainian izan badute Bi pertsona badira jasotzaileak, biek bete beharko dituzte baldintzak. Hipoteka eskatzen duten pertsonak, gainera, ezin izanen dute eduki 100.000 eurotik gorako ondarea.

Neurri hori eskasa da, Gobernu honek bere politikekin larriagotu egiten duen egiturazko arazo bati jarritako adabaki bat baino ez: baldintza irrea- lak ezartzen dizkie Espainiako familia arruntei, eta ez du eragozten beste batzuk izatea laguntza hori kapitalizatzen dutenak, espainiar guztien kaltetan.

Edozein modutan, eta laguntza behar bezala ematen dela onartuta ere, hipoteka-mailegu bat

lortzen duten gazteek eta familiek, nahiz eta etxebizitzaren % 20 jada aurreztutik izan, % 7tik % 12ra bitarteko aurrezki behar izaten jarraituko dute autonomia-erkidegoa zein den, egintza juridi- ko dokumentatuen gaineko zergari eta ondare- eskualdaketen gaineko zergari aurre egiteko.

Voxen ez dugu utziko traba fiskal edo burokra- tiko bakar batek ere eragozteko familia eta gazte espainiarren ametsak eta beharrianak. Bermatu beharra dago espainiar guztiek izatea benetako etxe bat, non euren bizi-proiektua ziurgabetasunik gabe garatu ahal izanen baitute. Botere publikoek erraztu eta egingarri egin behar dute etxebizitza baldintza duin eta egokietan eskuratzea, batez ere premia handiena duten espainiarren kasuan.

Hori dela-eta, Vox Nafarroa foru parlamenta- rien elkarteak honako erabaki-proposamen hau aurkeztzen du:

Nafarroako Gobernuak premiatzen dugu:

- % 100eko hobaria ezar dezan egintza juridi- ko dokumentatuen gaineko zergaren eta ondare- eskualdaketen gaineko zergaren tributu-kuotan, Espainiako Gobernuak iragarri duen abal-lerroan aurreikusitako kasu guztietarako.

- Ondare-eskualdaketen gaineko zergaren kuotan % 100eko hobaria ezar dezan ohiko etxebizitza erosteko, baldin eta horren prezioa 300.000 eurokoa edo hori baino txikiagoa bada, familia ugariarentzat eta desgaitasuna duten per- tsonentzat.

- Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 19/1992 Foru Legea alda dezan, zerga hau ordaintzetik salbuetsirik egon dadin espainiar batek erositako lehenbiziko etxebizitza.

Eta Nazioko Gobernuak premiatzen dugu:

- Araubide erkideko autonomia-erkidegoen eta autonomia-estatutua duten hirien finantzaketa- sistema arautzen eta zerga-arau batzuk aldatzen dituen abenduaren 18ko 22/2009 Legea alda dezan, espainiarren arteko funtsezko berdintasu- na ziurtatze aldera lagatako zergei dagokienez, gutxienekora murriztuta betiere tributu-kuota, bereziki egintza juridiko dokumentatuen gaineko zergaren eta ondare-eskualdaketen gaineko zergaren kasuan.

- Hartu beharreko neurriak har ditzan egintza juridiko dokumentatuen gaineko zergaren eta ondare-eskualdaketen gaineko zergaren tributu- kuotan % 100eko hobaria ezartzeko Espainiako Gobernuak iragarri duen abal-lerroan aurreikusita- ko kasu guztietan.

- Berriro ezar dezan ohiko etxebizitzan eginiko inbertsiogatikoen kenkaria PFEZean, ohiko etxebizitzarako hipoteka-mailegu indarduna duten espainiarrek ordaintzen dituzten interesak kendu ahal izan ditzaten, eta interes-tasen igoera euren politikoetan zuzenean konpentsatu, jabetzan erostea erraztuz.

- Nazio osora hedatzea PFEZeko alokairu-gastuen kenkaria, alokairu-kontratuak dauzkaten espainiar guztiek kendu ahal izan dezaten horren kostuaren parte bat, eta KPIaren igoera euren politikoetan zuzenean konpentsatu.

- Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 28ko 37/1992 Foru Legea alda dezan, zerga hau ordaintzetik salbuetsirik egon dadin espainiar batek erositako lehenbiziko etxebizitza.

Iruñean, 2024ko otsailaren 15ean

Foru parlamentaria: Emilio Jiménez Román

¹ <https://ec.europa.eu/eurostat/web/products-eurostat-news/w/ddn-20230904-1>

² <https://www.cje.org/las-personas-jovenes-se-emancipan-a-los-303-anos-de-media-en-espana-la-cifra-mas-alta-de-los-ultimos-veinte-anos/>

11-24/DEC-00006. Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak berretsi egiten baitu Errusiak Ukrainari egindako eraso militarra salatzen duela, eta eskatzen baitu berehala buka dadila eta indar militarrek Ukrainatik atera daitezela

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSI DU

Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak, 2024ko otsailaren 19an egindako bilkuran, honako adierazpen hau onetsi zuen:

"1. Nafarroako Parlamentuak Errusiaren eraso militarra salatzen du, eta eskatzen du berehala buka dadila eta indar militarrek Ukrainatik atera daitezela.

2. Nafarroako Parlamentuak borrokak berehala buka daitezela exijitzen du, biktima-kopurua oso handia baita, eta tropak itzul daitezela nazioarteak Errusiako Federazio gisa aitortutako lurraldera.

3. Nafarroako Parlamentuak eragile guztiei dei egiten die Errusiak hasitako gatazka belikorako konponbideak bila ditzaten.

4. Nafarroako Parlamentuak berresten du desadostasunak konpontzeko esparrua Nazio Batuen Gutuna dela, bakearen eta diplomaziaren bideak erabiliz.

5. Nafarroako Parlamentuak Europako erakundeak premiatzen ditu arta ditzaten Ukrainatik

lekualdatu eta Europako beste herrialde batzuetan babesa hartuta dauden pertsonak.

6. Nafarroako Parlamentuak bere babes eta elkartasun erabatekoa adierazten die Ukrainako Gobernuari eta herriari eta, halaber, Errusian gerraren aurka manifestatzen ari direnei eta jazarpen polizial eta militarra pairatzen ari direnei.

7. Nafarroako Parlamentuak bere babes, esker ona eta errekonozimendua helarazi nahi die Ukrainako herriarentzako laguntza humanitarioa ematen boluntarioritza lanetan parte hartu duten Nafarroako pertsonen eta organizazioen.

8. Nafarroako Parlamentuak ekitaldi instituzional bat egingen du Ukrainako herriarentzako laguntza humanitarioa ematen boluntarioritza lanetan parte hartu duten Nafarroako organizazioetako ordezkariekin. Ekitaldia otsailaren 26an egingen da, 12:00etan, Nafarroako Parlamentuko atalondan".

Iruñean, 2024ko otsailaren 19an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

11-24/DEC-00007. Adierazpen instituzionala, kiroleko LGTBifobiaren aurkako Nazioarteko Eguna dela-eta

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSI DU

Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak, 2024ko otsailaren 19an egindako bilkuran, honako adierazpen hau onetsi zuen:

"Nafarroako Parlamentuak honako hau ERA-BAKITZEN DU:

1. Sexu- eta afektibitate- nahiz genero-bestelakotasuna elementu sozial aberasgarri eta positiboa dela onartzea, tratu-berdintasunaren eta diskriminaziorik ezaren printzipioaz lagunduta.

2. Kirola eraldaketaren bultzatzailetzat hartzea, ahalmen handia duena, balia daitekeena generoko-agindu zurrinak zalantzan jartzeko bidean aurrera egiteko eta emakumeen eta gizonen berdinkeria desagerrarazteko.

3. LGTB+ pertsonen ikusgarritasuna sustatzea eta kirolaren esparruan eta kirolarekin harremana duten gizarte eragile guztiei dei egitea konpromisoa har dezaten estereotipoen, bazterkeriaren eta

LGTBI+ pertsonen kirol-praktikarako asmoa kentzen dieten oztopoen aurkako borrokarekin.

4. Kirol esparruko portaera LGTBifobikoak, matxistak, xenofoboak eta serofoboak salatu eta sozialki zigortzea, batez ere kirol guneetako, kirol-zelaietako, harmailetako eta sare sozialetako hitzezko indarkeria edo indarkeria fisikoa, edozein dela ere arrazoia eta, bereziki, pertsonen sexu-orientabidean eta genero-nortasun edo -adierazpenean jatorria duten indarkeriak.

5. Hizkuntza inklusibo eta errespetuzkoaren erabilera sustatzea, estereotipoak ezabatuko dituen eta sexu-orientabidean edo genero-nortasunean jatorria duten adierazpide bazterzaile edo gorrotozkoen erabileraren aurka eginen duena.

Iruñean, 2024ko otsailaren 19an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

F saila:
GALDERAK

11-24/PES-00081. Galdera, "bibliobusa", "biliblioneta" eta gisako zerbitzuei buruzkoa

MIKEL ZABALETA ARAMENDIA JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko otsailaren 19an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Mikel Zabaleta Aramendia jaunak egindako galdera, "bibliobusa", "biliblioneta" eta gisako zerbitzuei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agintukoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2024ko otsailaren 19an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko foru parlamentari Mikel Zabaleta Aramendiak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten dio Nafarroako Gobernuko Kultura, Kirol eta Turismo Departamentuari, idatziz erantzun dezan:

Nafarroan, egun, zenbat "bibliobus", "biliblioneta" eta gisako zerbitzu ematen dira eta zenbat gehiago jarri nahi ditu abian departamentuak 2024an zehar?

Iruñean, 2024ko otsailaren 9an

Foru parlamentaria: Mikel Zabaleta Aramendia

11-24/PES-00082. Galdera, zerbitzu publikoetarako azpikontrataturiko enpresetan hitzarmen kolektiboak betetzeari buruzkoa

CARLOS GUZMÁN PÉREZ JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko otsailaren 19an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Carlos Guzmán Pérez jaunak egindako galdera, zerbitzu publikoetarako azpikontrataturiko enpresetan hitzarmen kolektiboak betetzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2024ko otsailaren 19an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Contigo Navarra-Zurekin Nafarroa talde parlamentarioko Carlos Guzmán Pérez jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan.

Jakin dugunez, CCOO sindikatuak Lan Ikuskaritzan salatu du Omega Servicios Especializados SL enpresak atzerapenez ordaintzen diela bere langileei. Konpainia horrek garbiketa-zerbitzua ematen du Nafarroako Gobernuaren jabetzapeko zenbait zentrotan, eta Gobernuak lehia-kerara atera zituen 5., 6., 8. eta 11. loteen esleipena ere lortu du orain dela gutxi.

1. Nafarroako Gobernuak gogoan al darabil neurriren bat aplikatzea bermatzeko zerbitzu publikoen azpikontratak dituzten enpresek kasuko hitzarmen kolektiboak betetzen dituztela, batez ere plantillen ordainsariei dagokienez?

Iruñean, 2024ko otsailaren 12an

Foru parlamentaria: Carlos Guzmán Pérez

11-24/PES-00083. Galdera, lizitazio-epeak bete ez dituzten hiru proiekturi buruzkoa

ÁNGEL ANSA ECHEGARAY JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko otsailaren 19an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ángel Ansa Echegaray jaunak egindako galdera, lizitazio-epeak bete ez dituzten hiru proiekturi buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agintakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2024ko otsailaren 19an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

kita dagoen Ángel Ansa Echegaray jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

C1.11-CCAA osagaiari dagokionez: Autonomia-erkidegoek eta Ceuta eta Melillako hiriek inbertsio-proiektuak zuzenean egitea, edo beste administrazio edo entitateekiko hitzarmen bidez, metropoli-inguruneetan isurketa gutxiko eremuak sortzeko edo funtzionatzeko helburuari begira edo garraioaren eraldaketa digitalari edo jasangarriari begira lagungarriak direnak (Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren 1. inbertsioko 1. azpi-neurria). Nafarroarako aurreikusten den finantzaketa 12.541.000 eurokoa da, "isurketa gutxiko eremuak metropoli-inguruneetan":

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxi-

3 proiektu daude deialdian ezarritako lizitazio-epeak (2023-03-31) eta esleipen-epeak (2023-12-31) bete ez dituztenak.

10	Aretako industrialdea, Burlata eta Erripagañako urbanizazioa konektatzeko bidea egokitzeko eta urbanizatzeko proiektua	Lurralde Kohesiorako Departamentua	Adjudikatzen dago	Adjudikatzen dago
11	Donejakue Bidea-Zizur Txikiko bizikletendako eta oinezkoendako bidearen proiektua	Lurralde Kohesiorako Departamentua	Lizitatzeko dago	Lizitatzeko dago
12	Uharte eta PA30 errepidea lotzeko bizikletendako eta oinezkoendako bidearen proiektua 1. fasea	Lurralde Kohesiorako Departamentua	Proiektua	Lizitatzeko dago

1.- Zertan dira 3 proiektu horiek?

2.- Proiektuak bete ahal izanen dira azkenean?

3.- Zer babes juridikorekin egiten ahalko dira 3 proiektu horiek, epeak bete ez diren arren?

Iruñean, 2024ko otsailaren 14an

Foru parlamentaria: Ángel Ansa Echegaray

11-24/PES-00084. Galdera, Inklusio eta Gaikuntza Digitalerako 2021-2025 Planari buruzkoa

ÁNGEL ANSA ECHEGARAY JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko otsailaren 19an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ángel Ansa Echegaray jaunak egindako galdera, Inklusio eta Gaikuntza Digitalerako 2021-2025 Planari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agintutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2024ko otsailaren 19an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Ángel Ansa Echegaray jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezartzen denaren

babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Inklusio eta Gaikuntza Digitalerako 2021-2025 Plana dela-eta (30 milioiko zuzkidura aurreikusten da, bai eta 18 proiektu ere):

1.- Zer aurrekontu du proiektu bakoitzak, eta nondik aterako da proiektu bakoitzari esleitutako zenbatekoa (Europako funtsak, Nafarroako Gobernuaren beraren funtsak...)?

2.- Zein zen, 2023ko abenduaren 31n, proiektu horietako bakoitzaren betetze-maila?

3.- Zer kronograma eta zer finantzaketa aurreikusten dira 2024rako eta 2025erako?

4.- Zein da adierazleen taula gaurkotua, plana aurkezteko dokumentuan sartu ez ziren 2025erako eta 2030erako aurreikusitako helburuak eta gaur egungo balioak barne?

Iruñean, 2024ko otsailaren 14an

Foru parlamentaria: Ángel Ansa Echegaray

11-24/PES-00085. Galdera, azken inauterietako ostiralean Iturramako institutuan egindako kontzertuan oihukatutako mezuei buruzkoa

IÑAKI IRIARTE LÓPEZ JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko otsailaren 19an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Iñaki Iriarte López jaunak egindako galdera, azken inauterietako ostiralean Iturramako institutuan egindako kontzertuan oihukatutako mezuei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agintutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2024ko otsailaren 19an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Iñaki Iriarte López jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezartzen denaren

babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun diezaion:

Gobernuak ba al daki inauterietako ostiralean, Iturramako institutuan, ikastetxeko ikasleendako kontzertu batean, ikasle-talde batek behin eta berriro oihukatu zuela “ETA, ETA, ETA” “No hay tregua” kantua abesten zen bitartean?

Harremanetan jarri al da ikastetxeko zuzendaritzarekin zer gertatu zen jakiteko?

Zer balorazio egiten du gertatutakoari buruz? Larria dela uste al du?

Inolako erantzukizunik eskatu al dio ikastetxeko zuzendaritzari? Nork antolatu zuen kontzertua?

Ikastetxeko zuzendaritzak noiz izan zuen gertatutakoaren berri?

Azaldu al zaie ikasleei zer larria den ehunka pertsonaren erailketaren ardura duen talde terroristaren siglak oihukatzea?

Iruñean, 2024ko otsailaren 14an

Foru parlamentaria: Iñaki Iriarte López

11-24/PES-00086. Galdera, azken inauterietako ostiralean Iturramako institutuan egindako kontzertuan oihukatutako mezuei buruzkoa

IÑAKI IRIARTE LÓPEZ JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko otsailaren 19an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Iñaki Iriarte López jaunak egindako galdera, azken inauterietako ostiralean Iturramako institutuan egindako kontzertuan oihukatutako mezuei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agintutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2024ko otsailaren 19an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita-

ko Iñaki Iriarte López jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Memoria eta Bizikidetzako, Kanpo Ekintzako eta Euskarako kontseilariak idatziz erantzun diezaion:

Departamentuak ba al daki inauterietako ostiralean, Iturramako institutuan, ikastetxeko ikasleendako kontzertu batean, ikasle-talde batek behin eta berriro oihukatu zuela “ETA, ETA, ETA” “No hay tregua” kantua abesten zen bitartean?

Harremanetan jarri al da Hezkuntza Departamentuarekin edo ikastetxeko zuzendaritzarekin zer gertatu zen jakiteko?

Zer balorazio egiten du gertatutakoari buruz? Larria dela uste al du?

Iruñean, 2024ko otsailaren 14an

Foru parlamentaria: Iñaki Iriarte López

11-24/PES-00087. Galdera, Kontratazio Administratiboko Batzordea arautzen duen ekainaren 26ko 74/2019 Foru Dekretua aldatzeko foru dekretuaren onespeneren berandutzeari buruzkoa

MARTA ÁLVAREZ ALONSO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko otsailaren 19an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Marta Álvarez Alonso andreak egindako galdera, Kontratazio Administratiboko Batzordea arautzen duen ekainaren 26ko 74/2019 Foru Dekretua aldatzeko foru dekretuaren onespeneren berandutzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2024ko otsailaren 19an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikitako Marta Álvarez Alonso andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, galdera hau egiten dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun diezaion:

Eduki beharreko txosten guztiak behin edukita, Nafarroako Gobernuak zergatik behar izan ditu 10 hilabete Kontratazio Administratiboko Batzordea arautzen duen ekainaren 26ko 74/2019 Foru Dekretua aldatzeko Foru Dekretua onesteko?

Iruñean, 2024ko otsailaren 15ean

Foru parlamentaria: Marta Álvarez Alonso

11-24/PES-00088. Galdera, unibertsitate-beken partida exekutatzeari buruzkoa

CRISTINA LÓPEZ MAÑERO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko otsailaren 19an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Cristina López Mañero andreak egindako galdera, unibertsitate-beken partida exekutatzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2024ko otsailaren 19an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikitako Cristina López Mañero andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

– Gobernuaren ustez, zeri zor zaio, 2023ko aurrekontuko behin-behineko datuen arabera, bete gabe geratu izana unibertsitate-beken partidako 665.354 euro?

Iruñean, 2024ko otsailaren 15ean

Foru parlamentaria: Cristina López Mañero

11-24/PES-00089. Galdera, Boliviako osasun-arduradunek urtarrilaren 15etik 19ra bitartean Nafarroara egindako bisitako agendari buruzkoa

MARTA ÁLVAREZ ALONSO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko otsailaren 19an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Marta Álvarez Alonso andreak egindako galdera, Boliviako osasun-arduradunek urtarrilaren 15etik 19ra bitartean Nafarroara egindako bisitako agendari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2024ko otsailaren 19an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikitako Marta Álvarez Alonso andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, gal-

dera hau egiten dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun diezaion:

2024ko urtarrilaren 23an informazio-eskaera bat aurkeztu nuen (11-24/PEI00077), zeinaren bidez eskatzen bainuen Boliviako osasun arloko arduradunek urtarrilaren 15etik 19ra bitarte Nafarroara egindako bisitaren agenda xehakaturik (ordutegiak, tokiak, parte hartu duten pertsonak eta egindako jarduerak).

Erantzuna, aurreikusitako agendarekin, 2024ko otsailaren 3an bidali zidaten.

Horri buruz, parlamentari honek hauxe jakin nahi du:

Aldaketarik izan al zen aurreikusitako agendaren eta azkenean egin zenaren artean?

Aldaketarik izan baldin bazen, zer aldatu zen? Aldaketak zehazki zeintzuk izan ziren jakin nahi dut.

Iruñean, 2024ko otsailaren 15ean

Foru parlamentaria: Marta Álvarez Alonso

11-24/PES-00090. Galdera, Hezkuntza Departamentuaren gizarte- eta hezkuntza-izaerako programei buruzkoa

ENEKA MAIZ ULAIAR ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko otsailaren 19an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Eneka Maiz Ulaiar andreak egindako galdera, Hezkuntza Departamentuaren gizarte- eta hezkuntza-izaerako programei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2024ko otsailaren 19an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko parlamentari Eneka Maiz Ulaiarrek, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren babesean, honako galdera hau egiten dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun dezan:

Hezkuntza Departamentuak helburu baliokideak dauzkaten bi programa dauzka:

- Toki-entitateentzako dirulaguntzak, gizarte eta hezkuntzako esku-hartzeko jarduerak egiteko (eskola-sustatzaileak).

- Ikasle zaugarriari lagun egiteko eta orientabide pertsonala nahiz familiarra emateko unitateen programa (UOA).

EH Bilduk zenbait galdera egin nahi ditu gizarte eta hezkuntza izaerako programa horiek direla-eta:

- Daukagun informazioaren arabera, UOAen programan kanpo-finantzaketa 2023-2024 ikasturtera bitartekoa da soilik. Zer gertatuko da 2024-2025 ikasturtetik aitzina? UOAendako 2024ko aurrekontuetan jasotzen diren partidak 2024ko urtariletik abuztura bitarteko aldia finantzatzeko al dira, ala 2024-2025 ikasturte hasierarako ere bai?

- Hezkuntza Departamentuan zer figura dago bi programa horietako bakoitza koordinatzeko eta bi programa horien arteko koordinaziorako?

- Zer metodologia ari da erabiltzen bi programa horiek ebaluatzeko? Hori dela-eta, egindako ebaluazio-txostenak jaso nahi ditugu, edo, gutxienez ere, egindako oroitidazkiak.

Iruñean, 2024ko otsailaren 15aan

Foru parlamentaria: Eneka Maiz Ulaiar

11-24/PES-00091. Galdera, jatorriz migranteak izanik egoera erregularizatugabeen dauden pertsonen prestakuntzarako duten eskubidea bermatzeari buruzkoa

JAVIER ARZA PORRAS JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko otsailaren 19an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Javier Arza Porrás jaunak egindako galdera, jatorriz migranteak izanik egoera erregularizatugabeen dauden pertsonen prestakuntzarako duten eskubidea bermatzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2024ko otsailaren 19an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Javier Arza Porrás, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun dezan:

Nafarroan bizi diren pertsona guztien eskubideak bermatzeko konpromisoa beharrezkoa den aldetik, Nafarroako Gobernua nola ari da bermatzen jatorriz migranteak izanik egoera erregularizatugabeen dauden pertsonen prestakuntzarako duten eskubidea? Bereziki jakin nahi dugu nola ari den bermatzen profesionaltasun-ziurtagiria lortzeko prestakuntza-programetan sartu ahal izatea eta horretan zer-nolako eragina izan dezakeen 2/0023 Errege Lege-dekretua indarrean sartu izanak, horren bidez arautzen baita Gizarte Segurantzaren sisteman sartzea prestakuntza-praktikak edo prestakuntza-programetako kanpoko praktika akademikoak egiten dituzten ikasleak

Iruñean, 2024ko otsailaren 15ean

Foru parlamentaria: Javier Arza Porrás

11-24/PES-00092. Galdera, Nafarroarentzako ikus-entzunezko edukiak biltzeko plataformarako proiektuari buruzkoa

MIKEL ZABALETA ARAMENDIA JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko otsailaren 19an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Mikel Zabaleta Aramendia jaunak egindako galdera, Nafarroarentzako ikus-entzunezko edukiak biltzeko plataformarako proiektuari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agintakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2024ko otsailaren 19an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko foru parlamentari Mikel Zabaleta Aramendiak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten dio Nafarroako Gobernuko Lehendakari eta Berdintasun Departamentuari, idatziz erantzun dezan:

Nafarroako 2023rako Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 28ko 35/2022 Foru Legean "060003 06100 2276 921500 Gertuko edukien agregatzaile baterako proiektua idaztea" partida dator jasota.

Nafarroako Gobernuko Lehendakari eta Berdintasun Departamentuak iragarri zuen abian zela Nafarroarako ikus-entzunezkoen edukiak biltzeko plataformaren proiektua idazteko kontratua lizitazio-prozedura, eta 2023ko urriaren 31n amaituko zela exekuzio-epea.

Horregatik guztiagatik, honako galdera hauek egiten ditut, idatziz erantzuteko:

1.- Zertan da Nafarroarako ikus-entzunezkoen edukiak biltzeko plataformaren proiektua?

2.- Nafarroako Gobernuak zer jarrera du proiektu hori dela-eta?

3.- Zer egingen duzue zehazki 2024an proiektu hori dela-eta?

Iruñean, 2024ko otsailaren 15ean

Foru parlamentaria: Mikel Zabaleta Aramendia

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

Nafarroako Kontuen Ganberako lehendakariaren Ebazpena, zeinaren bidez onesten baitira 2024. urterako plantilla organikoa eta 2023ko abenduaren 31n zeuden funtzionarioen eta behin-behineko langileen zerrenda

Abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legearen 6. artikuluan ezarritakoaren arabera, Kontuen Ganberak eskumen osoa du bere gobernuari, barne araudiari eta bere zerbitzupeko langileei dagokien guztiaren gainean. Halaber, 32.2 artikulua ezartzen du foru lege horretan aurreikusten ez den guztian Nafarroako Parlamentuaren barne-araubideko eta -governuko estatutua aplikatuko dela, ordainsari-araubidea barne.

Nafarroako Parlamentuko Langileen Estatutua-ren 14. artikulua ezartzen du urtero-urtero onetsi behar dela, Langileen Batzordeak horri buruzko txostena eman ondoren, Ganberako langileen plantilla organikoa, lanpostuen zerrendan adierazita kasuan kasuko maila, betekizunak, ordainsari osagarriak eta, kasua balitz, izendapen askez bete behar ote diren. Halaber, 14.2 artikulua xedatzen du Mahaiak urtero prestatuko duela Legebiltzarreko funtzionario guztien zerrenda bat, urtean urteko abenduaren 31ko egoeraren arabera, eta bertan agertuko direla funtzionarioen datu pertsonalak, maila, gradua, lanpostua eta administrazio-egoera.

Ganberaren idazkari nagusiak 2024. urterako plantilla organikoaren proposamen bat aurkeztu du, bai eta Ganberaren zerbitzupeko 2023ko abenduaren 31ko langile funtzionarioen eta behin-behineko langileen zerrenda ere. Proposamen horrek Kontuen Ganberako administratzailearen,

kontu-hartzailearen eta Langileen Batzordearen aldeko txostenak jaso ditu.

Hartara, lehendakaria naizen honek, nire ahalmen nahiz eskumenak eta Nafarroako Parlamentuko Mahaiak 1985eko urtarrilaren 23ko Erabakiaren bidez eskuordetu zaizkidan eskumenak baliatuta, honako hau

EBATZI DUT:

Lehena. Nafarroako Kontuen Ganberako 2024. urterako plantilla organikoa, zeina ebazpen honen 1. eranskin gisa atxikirik baitago, onestea.

Bigarrena. 2023ko abenduaren 31n Nafarroako Kontuen Ganberaren Zerbitzuan zeuden funtzionarioen eta behin-behineko langileen zerrenda onestea —ebazpen honen 2. eranskin gisa atxikirik dago—, bai eta 3. eranskinean atxikitzen den informazio osagarria ere.

Hirugarrena. Ebazpen hau Nafarroako Parlamentuko Mahaiari igortzea, ezagut dezan eta Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzeko agin dezan, eta Kontuen Ganberaren web orrian argitaratzea.

Iruñean, 2024ko otsailaren 13an

Kontuen Ganberako lehendakaria: Ignacio Cabeza del Salvador

1. eranskina

Kontuen Ganberako plantilla organikoa 2024. urterako

Lanpostua	Kopurua	Maila	Araubide juridikoa	Euskara maila	Izendapen librekoak	Esklusibotasuna	Lanpostua	Mailako osagarria	Osagarri berariazkoa
Lehendakaria	1		P		X				
Lehendakariaren idazkaria	1		G		X				
Idazkari Nagusia	1	A	F		X	55	99,10		35
Auditorea	4	A	F			55	99,10		10
Auditorea	1	A	F	C1		55	99,10		10
Legelaria	2	A	F			55	82,10		
Kazetari-itzultzailea	1	A	F	C1		55	82,10		
Informatikako goi mailako teknikaria	1	A	F			55	82,00		
Informatika sistemetako erdi mailako teknikaria	3	B	F			55	67,00		
Auditoretzako teknikaria-Kontuhartzailea	1	B	F			55	67,00		20
Auditoretzako teknikaria	15	B	F			55	67,00		
Auditoretzako teknikaria	3	B	F	C1		55	67,00		
Administratzailea	1	C	F	C1	X	55	74,50	12	
Administraria	5	C	F				62,68	12	
Administraria	1	C	F	C1			62,68	12	
Sistema informatikoetako ofiziala	1	C	F				62,68	12	
Zerbitzu orokorrak ¹	1	D	F	B2			53,00	15	
GUZTIRA	43								

F: funtzionarioa

P: Lehendakaria

G: Kabineteko behin-behineko langilea – izendapen librekoa

¹Zerbitzu orokorretako lanpostua lehengo plantilla organikoko "mandatariari" zegokiona da, izenez aldatu baita.

2. eranskina

2023ko abenduaren 31n Nafarroako Kontuen Ganberaren Zerbitzuan zeuden funtzionarioen eta behin-behineko langileen zerrenda

Kopur	Izen-abizenak	Maila	Gradua	Lanpostua	Administrazio egoera
1000	Cabeza del Salvador, Ignacio	-	-	Lehendakaria	Jardunean
1001	Mitxaus Barberena, Ainhoa	-	-	Lehendakariaren idazkaria	Jardunean
1201	Contreras López, José	A	7	Idazkari Nagusia	Jardunean
1101	Aurrecoechea Gutiérrez, Miguel Ángel	A	7	Auditorea	Aktiboa
1102	García Logroño, José Javier	A	1	Auditorea	Aktiboa
1103	Moreno Orduña, Karen	A	5	Auditorea	Aktiboa
1104	Olaechea Estanga, M ^a Asunción	A	7	Auditorea*	Aktiboa
1105	Lanpostu hutsa	A	-	Auditorea	Beteta –prestakuntzarako zerb. bereziak
1202	Lanpostu hutsa	A	-	Legelaria	Beteta –prestakuntzarako zerb. bereziak
1203	Sánchez Lerma, Gemma Angélica	A	6	Legelaria	Aktiboa
1301	Erbiti Zabalza, Fermín	A	7	Kazetari-itzultzailea*	Aktiboa
1401	Garbayo Sánchez, José Antonio	A	7	Sistema informatikoetako goi mailako teknikaria	Jardunean
2201	Martínez de Estibariz Ochagavía, Javier	B	6	Sistema informatikoetako erdi mailako teknikaria	Jardunean
2202	Lanpostu hutsa	B	-	Sistema informatikoetako erdi mailako teknikaria	Beteta / Zerbitzu eginkizunetan
2203	Lanpostu hutsa	B	-	Sistema informatikoetako erdi mailako teknikaria	-
2101	Balduz Gil, Elvira	B	7	Auditoretzako teknikaria	Aktiboa
2102	Caños Hernández, Daniel	B	1	Auditoretzako teknikaria	Aktiboa
2103	Etxarte Zambrano, Maite	B	4	Auditoretzako teknikaria	Aktiboa
2104	García Cascante, M ^a Esperanza	B	2	Auditoretzako teknikaria	Aktiboa
2105	Herrera Isasi, M ^a Begoña	B	4	Auditoretzako teknikaria	Auditorearen prestakuntzarako zerb. bereziak
2106	Landivar Roque, Irantzu	B	1	Auditoretzako teknikaria	Aktiboa
2107	Marticoarena Chapa, Javier Iñigo	B	6	Auditoretzako teknikaria	Aktiboa
2108	Martinikorena Matxain, Miren Edurne	B	5	Auditoretzako teknikaria*	Jardunean
2109	Navarro Pérez, Saioa	B	2	Auditoretzako teknikaria	Aktiboa
2110	Navarro Aristorena, Aitor	B	3	Auditoretzako teknikaria	Aktiboa
2111	Ondarra Erdocia, Rosario	B	1	Auditoretzako teknikaria*	Aktiboa
2112	Rodríguez Jiménez, Ainara	B	4	Auditoretzako teknikaria*/Kontu-hartzailea	Legelariaren prestakuntzarako zerb. bereziak
2113	Ruiz Remirez, Carlos	B	1	Auditoretzako teknikaria	Aktiboa
2114	Sabalza Navallas, Marta	B	2	Auditoretzako teknikaria	Aktiboa
2115	San Martín Erice, Amaia	B	2	Auditoretzako teknikaria	Aktiboa
2116	Sarasa Amatriain, Nuria:	B	2	Auditoretzako teknikaria	Aktiboa
2117	Sola Núñez, Miryam	B	1	Auditoretzako teknikaria	Aktiboa
2118	Lanpostu hutsa	B	-	Auditoretzako teknikaria	-
2119	Lanpostu hutsa	B	-	Auditoretzako teknikaria	-
3201	Pueyo Resano, Francisco Javier	C	7	O.T. Sistema informatikoak	Jardunean
3101	Elizalde Elizalde, M ^a Julia	C	7	Administraria*	Jardunean
3102	Casado Redín, Cristina	C	7	Administraria	Aktiboa
3103	Elizalde Del Rincón, Teresa	C	7	Administraria	Aktiboa
3104	García Fuentes, M ^a Dolores	C	7	Administraria	Aktiboa
3105	Hernández Asiron, M ^a Mercedes	C	6	Administraria	Aktiboa
3106	Lanpostu hutsa	C	-	Administraria	Beteta - Administrazio-kontratua
3107	Lanpostu hutsa	C	-	Administraria*	-
4101	Lanpostu hutsa	D	-	Zerbitzu orokorrak ¹	Beteta - Administrazio-kontratua

¹Zerbitzu orokorretako lanpostua lehengo plantilla organikoko "mandatariari" zegokiona da, izenez aldatu baita.

* Euskararen ezagutzarekin

3. eranskina

Nafarroako Kontuen Ganberako plantilla organikoari atxikitako informazio osagarria

I. Kontuen Ganberako lehendakaria

Izen-abizenak	Lanpostua	Aldia
Cabeza del Salvador, Ignacio	Lehendakaria	Urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra

II. Nafarroako Kontuen Ganberaren behin-behineko langileak 2023. urtean

Izen-abizenak	Lanpostua	Aldia
Mitxaus Barberena, Ainhoa	Lehendakariaren idazkaria	Urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra

III. Nafarroako Kontuen Ganberak 2023. urtean kontraturiko langileak

Izen-abizenak	Lanpostua	Kontratazio-modalitatea	Aldia
Maritorea Azkarate, Xabier	Zerbitzu Orokorrak	Administraria	Urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra
Oscáriz Martínez, Iñigo	Administraria	Administraria	Abenduaren 12rik 31ra

IV. Nafarroako Kontuen Ganberan zerbitzu eginkizunetan 2023an

Izen-abizenak	Lanpostua	Aldia
Saiz Agustín, M ^a Dolores	Sistema informatikoetako erdi mailako teknikaria	Urriaren 16tik abenduaren 31ra

V. 2023. urtean zehar Kontuen Ganberaren Antolamenduari buruzko Erregelamenduko 17. artikuluan aurreikusitako prestakuntza-jarduerak egin dituzten funtzionarioak

Izen-abizenak	Maila	Lanpostua	Prestakuntza	Maila	Prestakuntza-aldia
Herrera Isasi, M ^a Begoña	B	Auditoretzako teknikaria	Auditorea	A	Urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra
Rodríguez Jiménez, Ainara	B	Auditoretzako teknikaria	Legelaria	A	Urriaren 1etik abenduaren 31ra
Erburu Elizondo, Fernando	D	Mandataria	Administraria	C	Urtarrilaren 1etik abenduaren 1era

